

ETL-021 Hizlari ezezaguna
Etxalar, Nafarroa

Aurkibidea

Biografia

2000. urtean Bortzirietako Euskara Mankomunitateak ahozko tradizioa biltzeko bekaren barruan Etxalarren jasotako lekukotza anonimoak.

Zintak

ETL-021

- **Proiektua:** Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:** 2000-01-01
- **Iraupena:** 58 min
- **Euskarria:** Audio digitala

Pasarteak

1. Etxearekin lotutako ohiturak

- **Erref:** ETL-021/001

- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Bezperan, San Juan bezperan, arrats-ilunabarrean egiten dugu. Hemen teila bat ekarri sukaldera, erramu bedeinkatua, joan den urtekoa, ez aurtengoa. Joan den urteko erramua ekarri harat, brasa bat bota... paratu han, eta hura hasten da kea dariola. Garrekin ez du balio, nire..., bueno, guretzat. Kostunbreak dira, tontakeriak dira, bueno, igual da. Eta (...) erretzearekin, orduan denak pasa, hiru aldiz, e! "Sarna fuera, ona barrena, gaixto kanpora" hori kantatu, batek kantatu eta denak pasatzen dira, denak.

Eta gero, teila hura bere harekin, erramu harekin eraman eta hortxe, baratz izkinan hortxe utzi eta erre... erretzen da hura. Eta bueno, hura akabatzen da San Juan ga(ua)... gero atean egiten dute horiek su handi bat, eta hor ibiltzen dira saltoka, baina ez dute deus errezatzen, ez.

- (Iloba): Baino erramu hondarra denak bota...

- Bai erramua, aitzineko urtekoa, hemen errez gainerakoa, sobratzen dena su hartara bota, eta han erre.

2. Xaboa etxean egin

- **Erref:** ETL-021/002
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:00:55. **Bukatu:** 00:01:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Xaboa? Urina, urin zaharrak izaten dira sobranteak, eta... haiek zertu, egosi, bueno ez... ura epel... ez ber... ez zen edo ez da berotu behar fuerte, ura epeldu, gogortua izaten baitzen, eta ura zalutu pixka bat eta zazpi litro urin eta bertze zazpi litro ur. Hura palangana batean paratu, baina eternoa da egitea, e! bi ordu igual, edo hiru, igual. Eta sosa kaustiko kilo bat. Baina botatzen zen hura, sosa kaustiko hura gutxika-gutxika-gutxika. Pixka bat eman, eta ordu kuarto baten buruan bertze pixka bat... eta horrela. Hondar aldera ez, ja maizxeago baina minbera izaten zen hagitz. Eta egiten genuen xaboa, xaboi ona, e! arropa garbitzen du, garbitzen zuen arropa. Bai, bai, xaboi ona. Eta, horrela, egiten zen gauza denak aprobetxatzen ziren, orain baino hobeki.

3. Kukuso belarra solairuari

- **Erref:** ETL-021/003
- **Iraupena:** 0:00:21. **Hasi:** 00:01:50. **Bukatu:** 00:02:11
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Gero, kukuso-belarra. Aditzea baduzue? Kukuso-belarra ibiltzen genuen, guk behinik behin ibili izandukatu dugu solairuari emateko. (...)
- Kukuso-belarrak badu holako urin gisako pixka bat. Eta hori ematen genuen solairuan eta brillo... brilloa ateratzen zuen, e! Bai, bai, bai.
- Eta usaina? Kukuso-belar...
- Usaina izaten zuen ona, bai.

4. Gerra denboran zakuekin jantzi

- **Erref:** ETL-021/004
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:02:11. **Bukatu:** 00:03:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Orduan denbora haietan dendetan ez zen orain bezala paketatua etortzen gauza, dena etortzen zen zakutan: garbantzuak, ilarrak, lentejak, azukreak, denak horiek. Eta klaro, zaku haiek hustu eta han gelditzen ziren, eta haietatik erosi, eta klaro, kolorea zakua jeneral itsusi samarra da, eta aldatzeko pues... zuria nahi bazen lixibarekin egiten da, eta bertzela, pues, gar(bitu)... ongi garbitu eta tindatu, koloretan. Bakarrik tindatzen baduzu, gero hark garbialdi guztia tinta botatzen du, eta bakarrik garbitu behar duzu beti porke beti tinta botatzen du eta gainera kolorea galtzen du. Eta bueno, harekin konpontzen zinen, eta gero gainerako galtzerdiak-eta, horiek etxean egin, txapina erraten zaion ardi iletik. Ile hura garbitu eta... gero, pues, guhaurek egiten genuen, halako erreminta tx(ar)... makina txar bat bazen, eta haria egin harekin, eta txapinak egin eta galtzerdiak, eta txaketak ere bai, bakarrik faldak izandukatu nituen nik baina txarra da hagitz, pikatzen du, pikatzen du hagitz fuerte. Eta bueno, hala beztitu... jantziena, pues, hala konpontzen zen jeneralean baserrian.

5. Lanean ari zirenei bazkaria eramateko modua

- **Erref:** ETL-021/005
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:03:24. **Bukatu:** 00:04:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Bai eta bazkariak eta lehenago nola eramaten ziren la... iraulka harat... pentsa ezazu, hura ere iratze pikatzen eta... hemendik bazkaria iraulka haraino joaten zen, klaro. Handik etorri eta... lana aunitz galtzen zen. Eta bazkaria, paratu horrela zer bat, burutea erraten genion, horrela... tin. (...).
- Burutea, zer hemen trapu bat?
- Bai, trapu bat paratu horrela... horrela egin eta... egin eta han. Eta bazkaria eramaten zuten. Nik ez dut eramankatu, ez. Kontu gabe, e! Kontu gabe. Pentsa ezazu nola domatuak izaten ziren, nola ikasiak, e! Nik hura ez

nuen eginen, ez nuen egiten. Kontu gabe, ez nintzen saiatzen ere dudarik gabe, ez baina igual nuen ez saiatzea. Baina saskiak, e!

6. Zerri-hiltzea

- **Erref:** ETL-021/006
- **Iraupena:** 0:07:23. **Hasi:** 00:04:05. **Bukatu:** 00:11:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Nik bezperan prestatzen dut tipula xehe-xehe-xehe eginda, eta zenbaitzuk egiten dute kazolan ura, paratzeko errazagoa da, e! Nik ez dut hala egiten, porke ez zait gustatzen. Ura kazolan paratu olio pixka batekin eta hor egiten, egiten txaparen gainean kontu eta ura gelditzen da arroza bezala masa bat egina, ez idorra, guri-guri-guri-guria. Nik hura ez dut nahi. Nik zartaginean frijitzen dut, tipula, xehatu, bezperan xehatu eta zartaginean frijitu, olio pittu-pittu bat eman eta hor gutxika-gutxika, hura, hola honen kolorea erre arte, gorri-gorritxo jarri arte. Usain on bat botatzen du hark, pues hala egin arte. Pues nik zer dakit, ehun eta berrogei bat kiloko zerriarentzat, pues, sei-zazpi kilo tipula ematen dut nik, dena xehe-xehe-xehe, dena ongi xehatua, e! Hura, tipula hura hala prestatzen dut, xehe-xehe egin eta gero frijitu. Hura utzi, bazter batera hoztuta. Eta gero baratxuria, baratxuria zuritzen dut, txistorka-txistorka zuritu eta xehatu, horietan, katxarro horietan. Horietan xehe-xehe-xehe egin, paratu kazola batean ura.

(...)

Bai, eta hura xehe-xehe-xehe-xehe egin, kazola handixko batean paratu bizpahiru litro ur eta zerri handi horrentzat, nik erran dudan berrogei, berrogeita hamar, ehun eta berrogeita hamar kiloko zerri horrentzat, bederatzi-hamar buru, hor ibiltzen... ez dut... kasu handirik egiten. Bederatzi-hamar buru, hura zuritu, xehatu, ongi xehatu eta paratu, ura bezperan paratzen dut, e! tipula eta ura, kazola hartan bizpahiru bat litro ur paratu eta hura, horiek utzi ja, hura prest da, yasta. Ondoko egunean zerria hil, odola hartu eta odol hura pues, kuajutzen da ez baduzu ibiltzen. Ura ibiliz, ibiliz, ibiliz, ibiliz ongi hoztu artean, eta hark izaten du halako espuma bat, grumotzar batzuk odola... hura dena botatzen dut nik harrika, e! Odol hau garbi, garbi, garbia hartu. Hura utzi hoztera.

Bueno, gero zerria garbitzen dute iratzeekin, erre. Gero garbitu, tripak atera, eta gero tripak, klaro, horiek garbitu behar dira, bueno garbitu beharra, nik hala egiten dut, gure etxean ez dute nahi erositako hertzeekin odolkia egina. Txistorrak bai. Joaten naiz horra, beheko ur horretara, sartu erdi-erdian eta hor garbitzen dut hertzea, behar direnak odolkia egiteko. Eta bueno, gero odolkiak egin, Mirenek eta biok egiten ditugu. Honek lotu, eta odolki haiei ematen diet tipula hura, odol hari, tipula hura... zerri burua gero egosten dut, lehengo aldian erran nizun magro hutsa, dena, gizen hura dena fuera. Magro hutsa, egoten da aunitz magra hemen bi aldeetan, eta izaten du zerriak aunitz buruan, badu zerbait. Hura xehe-xehe egin, hura. Ura, tipula, arroz pixka bat, espezieak, kanela eta... hori.

- Baratxuria.

- Baratxuria ez. Kanela eta... piper beltza, piper beltza. Eta zenbaitzuek ematen diote porrua eta ez dakit zer. Nik ez diot deus ematen holakorik,

deus ere.

- Eta baduzu truko bat, ez? Bezperako tipulen azala...

- Bueno, ura gero egosteko, gero ura egosteko. Gero odolkien hura nahasi eta gero probatu behar da. (...) Bai, ez da uzten ahal porke ez dakit espeziarean gustua, baina gatza? Gatza nola azertatu behar duzu? Gero ez daiteke gatzik eman hari, ura egiten, odol hura masa egina delarik behar duzu gatza eman. Eta, bueno, hura probatu, gero odolkitan sartu, eta gero lehenago bezala egiten dut nik. Ez dakit zuek konprenituko nauzuen, zumea. Ez dakizu zer den? Zumea da odolki zintzilik hartu eta paratzeko halako arbazta luze bat horrela, eta haiekin aro bat egin, nik egiten dut aro bat hari lehenbiziko eta gero aro hartan hau sartu hola, mutur... odolkia sartu gabe eta gero hola sartu eta gelditzen da odolkia zintzilik.

- Egosteko...

- Egosteko. Zumea (...) bueno hartan egosi, eta egosteko ur hari, burua egosten dudan ur harekin ez dut egosten odolkirik, porke hark badu... grasa handia uzten du han, eta ez dut, ez... gure etxean ez da gustatzen grasa klase hori. Orduan guk hura botatzen dugu. Guk garbi-garbi paratu eta botatzen diot hari tipula azalak eta baratxuri azalak. Han izaten ditut, poltsan bilduak. Eta haiek ateratzen, ez dakit gustua ematen edo nire mania den, ez dizut erranen, igual nire mania da, baina nik hori egiten dut. (...)

Eta gero odolkia ateratzen da... garbi-garbi, zuri-zuria eta usain on batekin. Eta baina egosi, odolkia ongi egosi, e! Gogor-gogor egin arte. Ez sartu atera egin eta segituan. Ez, ez, odolkiak gure... nire... gure etxean lukainkak bezala, xerra pikatu eta xerra aterako da, ateratzen zartaginean, frijituta. Da sikua, ez du grasik eta ez du deus ere, ez da mugitzen hura. Bueno, eta gero hura egosi eta paratzen dut zintzilik, lehenbiziko egosi eta ekarri goiti eta paratzen dut txaparen buruan. Ongi idor daitezela, eta idortzearekin zintzilik paratzen ditut despentsan. Bueno, yasta, odolkien negozioa egina da.

- Eta gero txistorrak eta solomoak eta...

- Bueno, eta gero txistorra, gero hori... lehenago egiten genituen makina batean etxean xehatu, baina orain eramaten ditugu harategira eta han elektrikoekin, bien... bost, uzten ditut eta total ez du... ez du kobratzen... ba! Ez du berrogei duro kobratzen, total ez du balio, ez du merezi hemen aritzea. Gero arratsean, handik hori, freskatua izaten da haragi hura, eta hari, haragi hari ematen diot... barreño batean delarik, bezperan prestatutako ura, baratxurien ur hura. Baina koladore batean pasatu ur hutsa, ez baratxuria. Zenbaitzuek ematen diote baratxuri hura, hala dena! baina nik ez diot hala ematen, nik ura bakarrik ematen diot. Gatza emanen diot, nola iduri zaidan hainbertzerentzat, pues hainbertze gatz. Eta ur hura, eta gero ongi masa egin, ongi gozatu hura barreñoaren barrenean. Eta yasta, utzi hor ondoko eguna arte. Goian freskatzen uzten dut, han badut, goian badut bertze despentsa handi bat, eta han uzten dut hura freskatzen. Ondoko goizean, pues... txistorrak egiten hasteko, beti probatu. Hartatik hartu pixka bat eta zartagin batean pixka bat frijitu, ez olio eta ez deus ere, hura bera, hala-hala, olio deus gabe. Ura frijitzen da, bera ederki... xehatu izaten baita haragi hura ongi, eta frijitzen da ederki hura. Hura, deus ere, olio eta deus ere eman gabe, hura. Uf! Hori. Eta klaro, orduan probatu hura eta ja orduan ea gatz aski duen edo ez duen, eskas baldin bada pues eman pixka bat, eta gero txistorrak egin. Egin, lotu eta hementxe zintzilik paratu, hortxe paratzen dut haga handi bat eta zintzilika hortxe paratu.

Sukaldean hementxe, hortxe paratzen ditut. Sukaldean, nire negozioak beti sukaldean. Bai, bai, klaro. Ez zaizkit niri idortzen bertzela! Nik hura... non, non paratu behar dut? Hor goian badut despentsa handi bat gasnak han

eta... konjeladorea eta gauzak han ditut, baina han ez da surik, ez, ez, ez. Nik... ez zaizkit ongi horiek... ez dira idortzen sekulatan! Eta sukaldean denbora guztian, negua izanagatik, jateko sua... ixten dugu sukaldeko atea, baina bertzenaz egun guztia sukaldeko atea irekia, e! eta gau osoa. Eta sua. Eta lukainkak seguru bortz egun baino gehiago ez dute ematen, idortzen dira. Eta orduan ja sartu. Eta niri lukainkak bai, bai, aski ongi egoten zaizkit, aski ongi egoten zaizkit.

7. Sagardoa

- **Erref:** ETL-021/007
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:11:28. **Bukatu:** 00:13:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Bueno pues sagar hura bildu, xehatu maza batzuekin, eta bota makina horren barrenera. Eta hark berak estutuz, estutuz, estutuz, zeba behetik, azpitik zurrusta batean botatzen zuen. Gero iragazki batzuetan pasatu, inbutu handi bat paratu, iragazki... eta barrikara bota, egurrezko barrika handi horiek, pues horietara bota, eta utzi hala-hala. Hura uzten zen hala. Klaro, igual betetzen genituen hiru-lau barrika edo horrela, pues bai. Baina gero hark... utzi behar da hura astiarekin, hark egiten du gero, botatzen du halako apar zuri bat, eta denborak eta denborak ematen du igual hilabete bat botatzen. Orduan apar hura botatzean, bajatzen da barrikara, baina ura pixka bat eman hari. Eta gero bera... gelditzen da botatzetik, bera kuratzen da hura, ja ona jartzen da orduan. Orduan, tapatu. Orduan tapa batzuk egin eta buztina, badakizu zer den?

- Bai.

- Buztina eta behi kakarekin, behi kakarekin egin masa bat. Masa bat harekin egin, eskuekin ura masa egin, eta barrika hari taparen gainean ongi tapatu hura, horrela buelta bat egin. Ongi tapatu hura, ongi tapatu, e! Porke... hartzen baldin badu haizea, txarra ateratzen da, mingortzen da. Eta hura ongi tapatu, eta hura ez gehiago ireki.

Gero, ez dakit nik, gero botilaratzen genuen apiril, hori... hori badakit seguru, apirilean botilaratu. Botilaratu, batzuk handik atera, probatu pixka bat... botilan sartu, bertze batzuk kortxoa eman, eta gero botila hura ez zutik, ez zutik utzi, horrela, etzanda, bai. Eta hura uzten genuen, heian iratzea baikenuen, zoko batean iratzea, bueno badakizue zer den, bueno erran dizuet arestian, oraintxe, eta iratze haien azpian, fresko egoteko. Eta terrible izaten genuen sagardo ona. Xanpaina bezala ateratzen zen hura... kortxoa kendu eta pum! egiten zuen hark.

8. Herrien fama-epistolak

- **Erref:** ETL-021/008
- **Iraupena:** 0:00:11. **Hasi:** 00:13:22. **Bukatu:** 00:13:33
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Beratarrak orgullosoak
Lesakarrak mozkorrek
Etxalartarrak enbidiosoak
Igantziarrak jakintsuak
Eta arantzarrak harrikalariak.

9. Auzolana

- **Erref:** ETL-021/009
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:13:33. **Bukatu:** 00:15:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Eta, auzolanak izaten ziren, ni Aiuntamentuan nintzen denboran bi egun izaten ziren, baina uste dut hiru egunetaraino ere izan zirela. Eta egun bat egin behar izaten zuten Aiuntamentuarentzat, hura mendian mintegietan. Eta ez bazuten egiten kobratzen zen; nire denboran... ni Aiuntamentuan nintzen denboran berrogei duro, berrehun pezeta kobratzen zen. Hura izaten zen kastigua, aunitz ez zen joaten, baina aunitz joan ere bai. Eta egiten genuen plantazioneak, egun hartan, plantazioneak... urte batean alde batean, bertzean bertzean.

(...) Eta bideetan ere bai; gero izaten zen bertze eguna bide txarrak konpontzen. Eta bide txarrak konpontzean ere batzuk abilak izaten ziren, eta Aiuntamentuak erne samar egon behar zuen, beti badakizu, irri egitera ez zen utzi behar! Papera ematen baldin bazenion eguerdi aitzinean, igual, baziren arratsaldean etortzen ez zirenak, eta hori, harat arratsaldean joaten zenak erraten ziguten guri:

- Aizak! Hik horri eman diok papera, arratsaldean ez duk etorri!

Eta:

- Bueno, ez apuratu! Heldu den urtean badakit noiz etorri! Etorriko naiz ilunabarrean!

Klaro, denak ez... ez baikenituen kontrolatzen ahal! Eta denen gainean egon! Batzuk bide batean, bertzeak bertzean eta, batek zona bat hartzen genuen eta joan eta ordu erdi bat edo ordu bat egiten nuen grupo batekin, eta bertze bidera joan eta bertzean ari zirenak, eta, horrela egiten genuen.

- (Ink.): Eta grupoak nola egiten zenituzten?

- Ez, baziren kostunbreak. Auzo batekoak biltzen ziren denak puntu baterat, eta orduan erraten du, bueno, auzokoak berak, erraten dute:

- Bueno, holako lekutan hagitz gaizki dugu bidea.

- Bueno, hala goazen! Zoazte, ari zaitetzte han zuek! Gero etorriko naiz bertze buelta bat ematera!

10. Atxa mitxa zilarra

- **Erref:** ETL-021/010
- **Iraupena:** 0:00:19. **Hasi:** 00:15:16. **Bukatu:** 00:15:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Begira, nik uste dut hemen lotua dagoela bada Etxalarren dagoen Olalde horrekin, olak zirela hor eta hori, bada pensatzen dut horrekin:

“Atxa mitxa zillarran
Yuan, yuan olara
Ardi beltzen billara
O Piltxon, biribiltxon
Txin, txan, txon!”

11. Haurrak zaintzea

- **Erref:** ETL-021/011
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:15:35. **Bukatu:** 00:17:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Orain bai, aspaldiko urteetan bainua, baina orduan ez zen, barreño batean garbitu, eta... klaro, barreño handi batean paratu ur epela eta han garbitu.

- (Senarra): Pañalik ez zen usatzen...

- Bai, pañalak... diferenteak, usar y tirar ez, hori ja hagitz berria da! Orain klaro, orain aunitz gurasori aditzen diogu: “Oi ,ama, bai haurrak lana!”. Bai, lehenago bezala denak garbitu behar balituzte! Eta klaro, labadora ere noiz?! Arrunt berandu, han eskuz garbitu behar zen arropa dena! Eta... diferente, hagitz diferentea zen, bizia aunitz nekosoagoa zen orain baino. (...)

Bai, pañuak ziren. Paño txiki bat paratu bere parteetan, eta gero izaten ziren pues... oraingoan aldean arrunt diferenteak, paño handi batzuek haurra inguru-inguru egin, eta gero paxa bat, paz... orain en cambio ez duela estutu behar, eta orduan... orduan estutua izaten zen berriz. Bai, zabala, horrela, paxa bat zabal-zabala, trapuzkoa, eta haiekin inguru-inguru egin eta bere partetaraino eta petxoraino. Eta gero haiek korda batzuk bazituen, eta haiekin lotu, baina, klaro, paño hura gero beti garbitu behar zen. Haurra egunean, txikia delarik behinik behin, aldatu behar duzu aldi multzoan, eta... gero, pues, beti garbitu behar dituzu horiek, garbitu eta idortu eta... berriz paratu, martxan. Oraingo horiek ez, orain aber! orain bildu-bildu egin eta basurara, yasta! Baina...!

12. Emakume baserritarren bizitza

- **Erref:** ETL-021/012
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:17:06. **Bukatu:** 00:19:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Pues, goizean jaiki, eta zazpi behi baldin baziren heian, eta zazpitik bortz jetzi behar baziren, bida edo hiru emakumearenak izanen ziren, hori fijo. Eta gero handik etorri eta pues... nada, gosari txikia egin, eta gero zerriak baldin baziren haiek bazkatu, oiloak bazkatu, eta gero gosaria prestatzen hasi. Eta gero... pues, eguerdiko martxa paratu, eltzaria edo eltzea erraten zaio hemen, kostunbrea hala da, eta hura paratu eta, uda baldin bazen, pues, belar pikatzera, edo arto jorrara, edo... horietara gizonak joanak izaten ziren eta haiekin batean joan; eta orduan nola zen ordua ordu zaharra edo erraten zena, orain baino bi ordu gibelago, hamaikak aldera artio horrela ari, eta, orduan bazkari hondarra prestatzera etorri. Eta bueno, berriz ere behiak bazkatu, bazkari hondarra prestatu eta gizonak etorri orduko pues... mahaira.

- Orduan emakumeek gizonen lana gehi...

- O! Horrengatik erran dizut nik; nik berriz jaio behar banu, emakumea ;ni pensar! Zuek beharbada tokatu zaizuen denbora horietan bizitzea, nik alaba bat badut eta hark hala erraten du: "Oi, ni emakumea izanean satisfetxo nago!"; bai, dituzuen... dituzuen galekin! Aber! Bueno, lanean eta bizi bai, orain ere ni ez naiz batere kontra lana, orain lana jendeak lan aunitz egiten edo nire iduriz, baina... hombre! Lan egin eta dirua, laborantza ez da hori, e! Hagitz diferentea da! Eta emakumea gainera beti... klaro, gizonak izan dira beti pixka bat... oraingo gizonak nik uste pixka bat bajatu diren kategoriaz, norbait ere behar badute, beharko noski! ;Anda no! Emakumea pixka bat... nire iduriz ari zarete zuen... zuen dituzuen posibilitateez baliatzen. Baina guk hori ez genuen, laborantza batean ateratzen den dirua biena bai, baina ff! ez dakit; biena den gauza bat behin ere ez da zurea, e! Eta... horrela. Gero, pues, handik aitzinera, pues, bazkaldu eta uda baldin bazen siesta egin, eta arratsaldean, pues, berdin, gauza bera, berriz ere...

13. Zerriak mendian gaztainez gizendu

- **Erref:** ETL-021/013
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:19:36. **Bukatu:** 00:23:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- (Ink.): Eta lehenago izaten ziren, zerriak egiten ziren utzi, gaztainetara joateko... zerriak, mendian...

- Bai, lehenago... ez zen orain bezala, orain saltzen dira zerrikumeak, batzuk... jateko txikiak, erreta, eta bertzeak berriz etxeetan gizentzeko, umeak eramaten dira. Lehenago berriz izaten zen bargoa. Bargoa... zen zerria... urtekoa edo... horrela, eta, horiek egiten ziren zikiratu, gero gizentzeko, eta gaztainan gizentzen ziren, eta pagatxa... pagatxa urteak tokatzen ziren pagoa...

- (Alaba): Baina gero izaten zen hori, e... ja herriko etxeek izaten zuen, ematen zuen ahal... edo... erraten zuten ja zerria biltzeko eta gehiago ez uzteko...

- A, bueno, hori orduan hemen gaztaina inportantea zen, joe, gaztaina denboran esperoan egoten zen, zergatik ere... lehenago erran dudana... miseria izaten zen. Eta, gaztaina bildu, eta gaztaina saldu. Harekin

pagatzen ziren dendetako zorrak eta... eta erosi ere bai, orduan, konparaziotara oinetakoak, abarkak berriak, galtzerdi txapin... berriak, eta erosi eta, joe, orduan gaztainarekin moldatzen zen. Eta, jana igual, etxean ere otordua, igual afaria gaztainekin, zerria gizentzeko, eta... zerbitzu terriblea zen gaztaina.

- (Alaba): Eta hori nola deitzen zion, Aiuntamientuak erraten zuelarik...

- A, gero, horretaz ere... bakoitzak bere terrenoa izaten zuen, gaztainadia, bere mugarriekin, bere terrenoa. Eta, bahikuntza bai jartzen zen, mendian azienda izaten zen: ardiak eta... zerriak ere... baserrietan eta libre, ba herrian ere bai, orduan herrian ere zerria dena libre izaten zen. Eta, joaten ziren gaztainadietara, eta gaztaina jaten baitzuten, eta... jolin, partikularrak bildu behar zuena azientak jaten! Paratzen zen bahikuntza, bahikuntza. Almirantea eta izaten zen orduan mendiko... guardamontea deitzen zitzaiona herrian, bueno, gure denboran izaten zen Santos hemen Martiñonean, eta horiek egiten zuten multatu, multatu... bildu, eta gero honenbertze multa pagatu behar zenuen, haiek biltzen... biltzen zuten horrat, bazter horretara, Aiuntamientuarena izaten zen.

- (Lag.): Eta bahikuntza hori zer zen?

- Eta horixe, bahikuntza erraten zaio bai, bahikuntza... Alfontso meza ondoan, orduan bandoa jotzen zuen, abisuak eta horrela: "Eta, bueno, heldu den... bihurtik, igual astelehenetik izanen da bahikuntza gaztainadian".

Eta, fo! Lan polita izaten zen ba azienda kontzen! Ardiak eta, martxa politean menditik eta, hori... haize hegoa eta hasten zuelarik eta... eta, honat etorri... eta hemen multatu. Eta... partikularrak, jendeak ere biltzen ari zenak eta igual harrika eta mina eman eta... denetik. Baina bahikuntza hori izaten zen, multa, ez dakit zenbat izaten zen orduan baina... baina... nahikoa izaten zen. Eta hor pasatzen genuen, ni oroitzen naiz e, bahikuntza denbora guztian Miakan, hau, Tomas Kaltxku hau, gure etxean hartua hori zerbait ere, pagatu edo ez dakit, edo. Eta bazkaria... amak eramaten zigun Miakara eta gu ardi zain, gaztainadietan sartu gabe.

14. Nola ehizatu

- **Erref:** ETL-021/014
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:23:23. **Bukatu:** 00:23:53
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Eta nola hiltzen dira usoak? Ja sarean harrapatuta...

- A... sarean harrapatutako lepoa hartu ausikian eta burua... bihurtu, bai, desnukatu... erraten den hori. Bai.

Badira formulak, bertze batzuetan... bertze sare batzuetan... lurraren kontra hiltzen dituzte, bertze batzuek... horrela bizkarrez... tiratu harri bati eta...

15. Hartutako usoekin zer egiten den

- **Erref:** ETL-021/015
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:23:53. **Bukatu:** 00:24:34

- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Eta... nola jakinen da zenbat... gorde bizirik saltzeko? Hori nola egiten duzue?
- Bueno, zenbaten eskaria... zenbaten eskaria eta gero beti batzuk... kontzen dira gordeta eskaririk ez izanda ere... gero bazkatu egiten ditugu... artoa, baba, baba xehea ematen ditugu (sic) edo bertzela ezkurra ematen diogu goizetan. Ez bada harrapatzeko esperantzarik... orduan gordetzen ditugu bizirik batzuk. Nola garesti saltzen diren eta klientea atenditzeko... orduan bazkatzen ditugu, bazkatu erraten diogu... eman jatera, e! Baina ez dute haiek jaten, e! Behar zaio sartu.

16. Gisua

- **Erref:** ETL-021/016
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:24:34. **Bukatu:** 00:27:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Gero lanak... pues hemen gisua ere, gisua egiten zen, gisua. Gisua badakizu zer den? Harria, hori... harria erretzen da, badakizu? Harria erre, eta hori ibiltzen zen pues, ibiltzen genuen, landari emateko abonua bezala.
- A... ona da bai, bai.
- Hagitz ona bai, bai. Horrek arintzen du eta, gero ibiltzen genuen paretari emateko, zuritzeko. Eta, masa, masa egiteko, rebokoak, kanpoko aldeko... zuri hori, reboke masa hori emateko ibiltzen genuen.
- Hauek betetzeko, ez? Edo baita ere...?
- Ez, ez, ez, pareta, pareta biltzeko, kanpoko... zuri hori nola, hori leundu eta gero zuritu. Hori egiten genuen legarra eta gisua nahasi, eta... orain zementuarekin bezala, pues orduan gisuarekin.
- Hori tapatzeko?
- Bai, bai, pareta biltzeko. Hori egiten genuen.
- Eta e... eta gisua nola egiten da zehazki? Edo zer...?
- Gisua? Hori... aste batez... sutan, osea, labeak badira espresak...
- Kisu labeak, ez?
- Bai, gero, batzuetan burdin batzuk eta... harriak holako harri multzoa, ongi plegatua. Gero aste batez egonen zen... garretan, guritu egiten zen, eta gero bi egun edo... bi egun noski hoztera uzten zuten. Eta gero, gure aita zenak bereizi egiten zuen zurixeagoa eta granza. Granza erraten genion, izaten zuen holako hare bat bezala, legarra bezala hura erretzen zena, eta hura gelditzen zen legar beti. Eta horixkoena bereizi. Bederatziga... landarako balio zuen edozeinek, baina zuritzeko ez, zuritzeko ahal bezain zuria eta... finena behar zuen. Eta gero harri hura... ahal bazen, bero... beroa zelarik oraindik barrika batean hura paratu eta bainu bat egin. Ja neurria izaten genuen, hori aunitz egin nik, eta gero, harria ba... bota harat eta, hasten zen pixka bat hartzen zuen ura harriak, txupatzen zuen "xxx..." fuerte eta pixkanaka

hasten zen irakiten ura, eta azkenean hasten zen irakiten baina terriblea, irakin "pu! pu! pu! pu!" baina fuerte... ur hori. Eta momentu hartu behar zenuen haga batekin, mugitu harria fuerte, urratzeko, zertaz bertzenaz gelditzen zen masa egina, zolan. Eta irakiten ari zelarik, gero ahal bezain guztia aguantatu behar zenuen, mugitzeko. Eta gero, egiten zenuelarik ja paratzen zenuen balde bat ur, eta berriz aritzen zen irakiten oraindik. Eta ja azkenik, dena ja... likido egiten zelarik, ura ematen zen eta pixka bat nahasi, eta nahasi, eta nahasi, eta nahasi, eta nahasi, eta gero deposituak.

Guk igual, urtean... bai, lau-bost mila litro, bai, saltzen izanen ziren, gisua etxeetara, zuritzeko, zuritzeko. Orduan dena, baserrietan dena, etxeetan dena zuri. Gisua izaten zen zuritzeko, gisua. Hori eta gero, ibiltzen zen pues, morteroa egiteko, paretak apaintzeko. Gisu... pues hori, hori izaten zen hemengo... pintura, eta fatxadak dena hori zen, gisua.

17. Paketeak garraiatzeko...

- **Erref:** ETL-021/017
- **Iraupena:** 0:10:49. **Hasi:** 00:27:51. **Bukatu:** 00:38:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Eta beti oroitzen naiz, oraindik soldadu ez nintzen joana, eta almendra... hasi nintzen almendra garraio. Eta lehenbiziko hastea izan nuen Igantziko Bentatik eraman behar izaten genuen Sarakoan beheitxko sartu behar izaten genuen. Jo! Eta hogeita hamabost kiloren izena izaten zuten, zakutan etortzen zen, eta hogeita hamabost kiloren izena izaten zuten, baina nagusi kontuko horiek beti kilo gutxiago erran, baina pisatzen zuten! Eta, egun batean egin zuen, -ez nuen biaje aunitz-aunitz egin, e!- handik jendea aspertu zen, baina hogeita lagunaren grupotaraino eta kontatuketu ditut, hogeita lagunetaraino eta... almendra garraio, biajea... biaje bakoitzean, eta zazpi ordu! Eta, egun batean egin zigun elurra, eta ezin segitu, elur arrastotik helduko baikin, eta herri hurbiletik pasatzen ginen, eta zen gure borda bat, belarra egiten genuen eta belarraz betea, eta gogoratu zitzaigun borda hartan gorde behar genituela, biaje hura; gero elurra kentzen zuenean eramane genituela, eta borda hartan belarrean gorde genituen. Eta, guk ere iruditzen karga gehiago bazutela eta: "Alua, pisatu behar ditugu ba!". Eta bagoaz eta pisatzen ditugu eta berrogeita bina kilo pisatzen zuten. Eta hala egin genituen... bo! Biaje mordoxka bat, baina gero laburtu zuten, erdi biajea pagatu zuten. Ja herrira... herritik goiti, eta horrela izaten zen, herriraino ekartzen zituzten nik ez dakit kamioietan edo... gero guk bazterrean hartzen genituen baina norbait ere dedikatzen zen baztertzeko, eta gero biaje erdia egin eta horrela, eta gero hura arinagoa izaten zen.

Eta irabazi! Erran behar dizuet zenbat irabazten genuen: zazpi ordu kargaren azpian eta hamabost duro, hirurogeita... hamabost pezeta, hamabost duro. Ez dut penarik... lana eginen nuke baina bet... harena beti badut, kontrabandoan... nahiago nuke ezagutu ez baldin banu. Harekin gorputzari zer paliza eman nion nik! Ni ailegatuketu naiz hemen baserri batean lanean ariki, eta egunez egiten nuen hargin lana eta gauez kontrabandora. Eta izaten zen hi... hiru-lau ordu gauez lana, edo he! he-he-

he! Horrela, lau bat ordu edo borts ere bai aldika, eta segun. Eta, astean borts egun segidan egin genituen, eta leher eginak, eta siesta egiten genuen eta nagusiari, siesta egiten ez banintzen ernatua eta, nagusia... eta biek eta iratzean egiten genuen heian lo, eta iratzean zangoa paratzen nuen nagusiari joka eta hura mugitzen zelarik, orduan ernatzen nintzen, bertzela ez nintzen ernatuko. Eta etxe hartakoak baziren, etxe batean behinik behin, buru kontukoak, eta lehenago deitzen zidaten langile, peoi, eta han lanean ari nintzelarik ez zidaten deitzen; normala da, eske gero egunez ez bainuen lana igual eginen! Eta haiek ere ez tontoak, baina baitziren bertzeak ere aritzen zirenak. Eta bertze lagun batek erran zidan: - Aizak, zer, ez duk etorri nahi?

Eta:

- Ba, igual, baina jobar!

Zen front... muga aldetik hurbilean baserri hura, eta handik etxera etorri eta berriz ere joan... Eta egiten genuen gaua lehenetik lana, eta: "E! Nik eramanen diat bokadillo bat!"- eta... -"Hator lanera!". Eta, nagusia bidean utzi, eta hark bokadilloarekin eta harekin batean rak! pakete eske. Eta orduan ekartzen genituen ja paketeak, handik, Frantziatik honat, puntilla eta horrela erraten zuten izaten zela. Eta bueno, puntillak, rodamentuak, eta... edozein gauza izaten zen horietatik, karga kasi...

Ink.: Kaseina ere pasatzen zenuten?

Mmm... ez dut uste nik behin ere ekarri dudan; nik ez, ez, ez, nik ez, sakarina nik ez dut behin ere ekarri. Gero... kobrea ere bai, bueno, kobreakekin istorio politak ere badira. Hemen erosten ziren... orduan baziren guarda zibiletan-eta eurek kontrabandoan ibiltzen zirenak, e! Bai, bai. Eta batena behinik behin klaroa dut, izena ez dut erraten ahal, baina... ejerzitoko bat bazen, eta neroni soldadu egon bainaiz, eta, haren istorio dena badakit. Ekartzen genituen eta egiten genituen bi biaje, eta guk kanpamentuak genituen herritik goraxeago, eta, kanpamen... bi biaje egin horrat eta etxerat, eta gelditzen ziren kanpamentuan gordeak, baina kanpamentutik bat nire giltzen azpian egoten baitzen, eta ez zituen inork sartzen ahal, eta biharamun goizean etortzen zen ofizial horietatik bat ejerzitoko kamioiarekin eta kobre rollo denak eramaten zituen. Eramaten zituen, (bai, bai, bai), eta, bueno, horrela bizkorkitan.

Eta gero nire anaia ere soldadu hemen egitea tokatu zen, eta harekin ere suertatu zen. Eta, horrela, kontrabandoa horrela zen, baina ez zen horrela gauza delikatua... ez zen, beti guarda zibilei eskapo egin bai, baina baziren bai orduan ere... eritu eta egiten zituzten, zenbait guarda zibil ez baitziren saltzen ere! Eta haiek letxean egoten ziren, eta aldi batean oroitzen naiz, ni ez nintzen han, baina hurrengo egunean, eritu zuten harekin batean zegoen laguna nirekin suertatu zen pareja, eta egun hartan ere guri eltzeak, eltzeak erraten diogu, karabineroak atera zitzaizkigun, baina ez zitzaizkigun gure pa... nire parejari atera; nire anaia bazihoan eta, orduan ere zen... ugalde bat zen, eta errekek handiak, eta pasatu behar genuen zubi batean nahitaez. Eta egin behar genuen hura izkinaz izkina etorri eta gero zubi hura pasatu eta berriz hura izkina-izkina goiti joan eta, eta guardia zibilak esperoan. Lagun bat pasatu zen pakete batekin, eta hari ez zioten kasurik egin; baina bazekiten dena, truko dena, hurrengo birekin etortzen zela. Bat batekin joan eta aiseko kontrabandistatik hoberexkoena joaten zen bakarrarekin; eta, hura pasatu eta ondotik nire anaia bat suertatu zen, eta bertze anaia, berriz, nirekin. Uraz bertze aldean nire anaiari ra! txaketatik hartu zioten eta: "¡Echa el paquete, maricón!", eta bertzeak diu! eskapatu, paketea bota, eta bere lagunak ere bai, eta artoak handituak ziren, Bestaberri ingurua zen zerbait ere, artoak handituak ziren. Eta, bat eskapatu zen arto tartean barrena gordeka eta, batek segitzen hari eta bertzeak klaro, paketea zaindu behar zuen; eta nire anaia, berriz,

eskapatu zen goiti, eta sartu zen ustekabeen erreka, eta honainoko ura, eta zahar... bazterrak artoa eta urean sartua geldi-geldirik han egon. Eta: "¡Ven, ven, que el de aquí se ha escapau para arriba!", egiten zioten, eta, bertzeak txaketa kendu... galduki. Txaketa hura... baitziren hemen paisanoak ere karabineroekin eta hagitz lagunak zirenak, eta nire anaiak, karrikakoak lagunak, eta karabineroak txaketa hura ez zuten erranen noski norena zen, e... baina ezin fidatu. Eta, txaketa hura efetiabamente, karabineroak ekarri eta: "¡E! ¿Ya conocéis este jertsei?", orain ez dakit zer erran zuten.

Eta, gero nire lagunak edo... nire anaiaren lagunak, karrikara ha! bizpahiru egun agertu gabe egin zituen eta, bi arreba baintuen, orain bat dut, baina... orduan bi arreba, eta bi arreben artean, hiru egunez jertse bat igual-iguala egin, eta jertse marroi bat zen, eta jertse igual-iguala egin eta, jertseak egin eta bere lagunak:

- Mekaguen tal! Hi zer? Nik hire txaketa ikusi diat guardia zibiletan! Hiri kontrabandoan kendu diate txaketa!

Eta:

- Ni! -hori ukatu behar zuen, horixe! -eta...- eta nik hona txaketa hemen.

Eta:

- Mikaguen diez! Pues, igual-igual zuan! Igual-iguala! -eta- eta jotzen nik hi izanen hintzela!

Eta:

- Ez, pues ez ninduan ni!

Pasatu zen, bai. Eta gu urak bertze aldean, eta zen bezperan eritu zuten haren lagunarekin ni, eta, erraten nion, hark da(n)! Paketea bota zuen, tiroak... klaro, urez bertze aldean bertan tiroka, eta, paketea bota, eta: "Ez duk gureztat, ez duk gureztat!", eta uraren soinuarekin ez zuten adituko, ez zuten aditzen, fuu! fuu! fu-fu!, riada handia zen. Eta, bertzeak tiroa zela eta, meka! Harek bota, jo! Nik ere bota hondarrean! Eta, baina gu baino gibelagotik heldu zen bertze bat, bakarka heldu zena bazen, orain Ameriketara bizi da, eta, hark botata bazuen goraxeago eta: "A! Hemen ez da inor ere ondolik heldu! Nik hau hartu eta eramane behar dut, nik salbatu behar dut!". Paketea galduz geroztik jorنالik ez baitzenuen izaten! Eta, nik eramane nuen eta nire paketearekin gibelerat, eta han nagusiak harrapatu genituen, gibelean, poliki gibelerago joanda, hemen baserri bat hurbilean eta:

- He! Paketeak galdu ditiagu! -erran nion-. Paketeak galdu ditiagu!

Eta, eta:

- Non duk?! Joxe Ramon. Non duk Joxe Ramon?

Eta:

- Bai, nik ez dakit hura lasterka.

- Mikauen! Bo(n)! Hura joan duk eta nik, koño, begira ezak, nik nirea galdu diat, baina bertze batena ekarri diat! Nik paketea hemen diat!

Eta paketea gorde genuen han hurbil hartan, eta, hala! bakoitza guharen etxerat. Baina gero dirua eman behar zuten denboran, pues, ez ziren gaizki portatu, nire anaiak txaketa galdu baitzuen, eta nire anaiari eman zioten jorنالaren erdia, eta niri egin zidaten erdia kendu. Erra... gero erran nion nagusiari:

- Nik ez nuen merezi galtzea! Hori zuen sakelatik eman behar zeniguten!

Eta:

- Ez, horrela konpondu diagu.

Eta:

- Bueno, bueno, bale, bale!

(...)

Ink.: Gainera hemengo gehienek...

Bai, bai, kontrabandoan hemen mundu guztia ibiltzen zen. Eta buf! honako

Zugarramurdi aldi horretan ez dut erraten, han ikusitakoak... han astoarekin eta guztiarekin aritzen ziren han.

18. Ogi garraio

- **Erref:** ETL-021/018
- **Iraupena:** 0:06:28. **Hasi:** 00:38:40. **Bukatu:** 00:45:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Ogi garraio... ez naiz oroitzen segururik, nik, hamabost bat urte edo horrela nituelarik izanen zen, hamabost-hamasei bat urte... Hor urte pare bat edo bizpahiru ibili ginen, Frantziar bat ogi eske joaten ginen, hemendik. Ekartzen genituen... bost lagun izaten ginen denetara, joaten ginenak gure grupoan, baina ez ginen denak batean joaten; gu bertze nire lagun bat, nire urte berekoa eta... bertze bat, hiru, gu hirurak bai, beti elkarrekin. Eta egun batean ekartzen nituen nik zazpi ogi, bina kilokoak izaten ziren, eta hemen ez baitzen ogirik, ez zuten ematen orduan, ogia kentzen zuten, eta, ogirik gabetanik eta artoak akabatzen zitzaizkigun sanferminetarako, eta zerbait ere jan behar zen, eta orduan ematen zuten San Ferminak edo Santiagoko tarte horretan ematen zuten ogi razioa. Eta ogi razioa hura ere gutxi zen, artoa dena akabatua, eta orduan hasi ginen ogia ekartzen Frantziatik. Eta, klaro! egunean... eguneko ekartzen nuen ogi bat bi kilokoak, eta bua! orduan ja hasi ginen. Oroitzen naiz eramaten genuen txokolata... bizpahiru pastilla eta han ogi fresko-freskoa hartu eta lehenbiziko zantza bat egiten nuen han eta zazpiak ez ziren etxera ailegatzen. Eta aldi batean kendu ziguten mugara ailegatzean soldaduek; alto bota ziguten eta gelditu ginen, eta ea nora joaki ginen, ogi eske joaki ginela, eta orduan ginen bi, eta hirugarrena bera bakarkaz joaki zen, eta, gu bioi... eta ha! nik...

- Zenbat ekartzen duzu zuk?

Eta:

- Nik bida! -gezurra erran nion-.

Eta bertzeak:

- Nik bat! -eta hark ekartzen zituen zortzi, eta nik zazpi-.

Eta:

- A, bueno, bueno! Ongi da! Zoazte, baina txaketak utz itzazue hemen, bertzela ez baitzarete hemendik etorriko eta gero eman behar duzu, ogiak... erdiak eman behar dituzue hemen guri!

Zeren haiek gosea... guk gosea eta haiek ere gosea zuten, eta, hantxe txaketak eske joan behar baikenuen! Eta bertze hirugarren lagunari kargatu genizkion bertze ogiak, klaro, bertze lekutik joan zen! Eta gu... pasatu ginen... pues, ni bi ogiarekin eta bietatik bat kendu zidaten, eta bertzea batekin, eta hari erdia, eta hark zazpi bidali zituen bertzearekin, eta nik, berriz, bidali nituen bost bertzearekin. Eta gero elkar harrapatu genuen, eta, klaro, bi ogi... ni ogi bat gutxiagorekin etxera, ogi bat gutxiagorekin etxera.

Eta bertze aldian berriz ere suertatu zitzaigun, hura oraindik arraroagoa. Ja ari ginen etxera hurbiltzen, eta denbora txarra zen, egiten zuen kazkabarra eta... a... ilargia ere bazen, baina kazkabarra denboran tarteka klaroak eta bertzetan kazkabarra, eta bueno, batean zutik, bertzean eroriak... ogi guztiak papurturik genituen. Eta botatzen digute altoa, eta, gelditu; eta

bagenuen berrogeita hamar metroko distantzia edo horrela eta guk pentsatzen genuen guardia zibilak izanen zirela, baina ez ziren hala izanen! Haiek ez ziren gureganat heldu eta gu ez ginen haiengana joaten, gu geldirik eta haiek geldirik; gauza bat arraroa. Eta bazen bidegurutzea eta haiek gu ezagutzen gintuzten... gero jakin genuen nor ziren. Eta, egin ziren, haiek hartu zuten beheko bidea, eta guk genuen gainekoa hartu beharra, eta, hiru lagun horietatik baten baserrian pasatu behar genuen, eta gu, bertze nire lagun hori, etxeraino etortzen nintzen (sic) lagun hori eta biok, guk (sic) eskapatuko ginenak hark geldiarazi gintuen, eta bertze tipo horiek pentsatu zuten, ziren soldadu bat eta paisano bat, ogia kendu nahi zigutenak, eta gu gelditzea hartan pues, fa! ez ziren etortzen ahal! Baina pentsatu zuten gero gu biak geldituko ginela baserri hura pasatuta, bertze baserriko atean, eta nik ogiak gorde nahi nituen han, baina bertzeari beldurra eman zion:

- Ez dut utziko... hemen ogia gordetzera, zergatik etxean behatzen bazidatek, harrapatuko zidatek!

Eta:

- Baina hemen meta azpian gordeko ditiagu atean.

Eta:

- Ez!

Eta bertzeak:

- Mekaguen tal, goazen! Goazen, Jabier, joan behar diagu! E, puñeta!

Eta:

- Bai, begira ezak, e! Gaur galduko ditiagu ogiak, e! Ikusiko duk! hau arraroa duk!

Eta efetibamente, handik lehenbiziko zokora ailegatu ginelarik, altorik eta deus ere bota gabe... gabetanik, tiroka hasi zitzaizkigun. Tiroka, eta tipiti-tapa! tiroka. Eta, jobar! Ni lasterka eta nik ogia bota, eta, ni ez bainaiz egundaino kontrabandista izan, eta bertzea bai, bertzea kontrabandista zen, trozo handia segitu zuen bere ogia bizkarrean, baina bertzeak heldu baitzitzaizkigun ondotik! Eta nik hari nion distantzia polita kentzen hutsik! Eta hark ere hondarrean bota zuen, eta joan ginen, buelta eman eta hark bota zuenean utzi gintuzten. Eta bertzea leku bati buelta eman, eta nire lagun horren etxetik pasatzean, biak sartu ginen haren etxean. Eta, oraindik etxean sartu eta erran zioten, arratsean hamabi eta erdiak ordu batak aldera horrela izanen zen, eta:

- Mutikoa, mutikoa, zer? Ogiak galdu dituzue zuek? Ilupak, más que ilupak!

Eta mutikoaren... mutilen amak ere:

- Orain zer jan behar diagu astean?!

Errietan pispildu zuten! Eta handik atera eta ni bakarrik etxera, heldu naiz etxera eta ama ohatzera joan gabe, nire esperoan, eta amak:

- Non dituk ogiak, Jabier?

Eta:

- Ogiak, ama, galdu ditugu, horrela eta horrela, eta...

Eta ni penatua, eta ama hasi zen negarrez, ia neroni ere ia negarra eskapatzen zait, ama hasi zen negarrez urrikitura.

- Ogi pixka bat jateko horrela ibili behar!

Eta beti oroitzen naiz gure amaren eskuez, zer bihotz ona zuen hark.

Errieta? Bai, zera! ez zen errietarik, ez!

Eta horietatik baditugu pasatuak; horrela, meharrenak horiek.

19. Karlistek etxeak hartzen zituzten

• **Erref:** ETL-021/019

• **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:45:08. **Bukatu:** 00:45:50

- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Gero... karlisten gerraren denborako istorio pixka bat. Hemen Kamioa, etxe handia, eta geroztik ere soldaduak hor ibili izandukatu dira. Kamioa. Pues, hor bizi zen nire amatxi zena, bere gurasoekin. Eta karlistak etorri zirelarik pues sartu ziren... hartu zuten etxe hori haientzat. Eta familia, bueno nire amatxiren familia dena kuarto handi batean sartu eta hantxe, hantxe dena haientzat. Eta gainerakoa dena haien esku hartua, aziendak eta denak. Bakarrik, gure amatxiren amari haurra egiteko utzi zuten ohatze bat behin.

20. Karlistak eta liberalak

- **Erref:** ETL-021/020
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:45:50. **Bukatu:** 00:49:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Eta bertzea, Errandeneko borda, baserria, han liberalak sartu omen ziren, baina sartu bordara, e! Eta dena arrasatu omen zuten, harrapatzen zituzten xingarrak eta harrapatu zituzten guztiak eraman omen zituzten. Oseake denek egiten zuten hartzen zena eta, baina bai karlistak ere, e! Eta karlistak bertze... bertze anekdota bat ere badut, orain emazteki xahar batek kontatu berria dit hori. Eta ez da gezurtia, nik baino istorio aunitz handiagoa du hark. Haren amatxiren aita Itxaurrikoa zen, eta, erretiradan, heldu ziren grupoan... nonbait ere eskapatu behar, eta sartu ziren karrikako etxe batean hor. Eta karrikako etxe horretan, pues, zituzten behiak eta orduan karlistak... Aiuntamentua kastigatu zuten hagitz fuerte! Eta historian hori ere egia da, hori ere egia da, zergatik karlistek jaten omen zuten herriaren kontura; hemengo karlista denak herriak mantendu behar omen zituen. Eta orduan egin zituen herriak zor handiak! Eta nire bisabueloak denbora haietan bere semea soldadu zuen, baina dudarik gabe bazuten pasta pixkaren bat eta herria ailegatu zitzaien baserritarrei eta dirua zuenari larriak eta saldu, eta dirua hartu haiei emateko! Eta orduan erositako terrenoak, oraingoan nire jaiotetxean han dira eskrituretan, han daude, leitzen ditugu, nire bisabueloa, Juan Kruz Indaburu... Berroeta, hark erosiak terrenoak, eta Karlista gerra denboran erosiak dira horiek. Eta horiek denak gerra hura dela medio... gertatu ziren horiek denak.

Etxalar hagitz fuerte kastigatu zen, eta, erraten dute erregea ere, haien erregea, Karlos ez dakit zenbatgarrena zen, erraten zuten gure aitak eta, Karlos ez dakit zenbatgarrena zen, eta, etorri omen zen, hura ere eskapuka, eta hura joan zen Baztanera. Eta erraten dute gure aita eta horiek, hura Baztandik... Baztango mugatik Frantziakora pasatu zela, eta erran zuela: "Berriz etorriko naiz! -Nafarroara-. Berriz etorriko naiz!". Orain ez dakit etorri zen edo ez zen. Eta hor karrikako Etxalarko baserri... edo... Itxaurri horretan, horretan atakatu omen zuten hagitz fuerte eta, kentzen omen zizkieten baserritar haiei, bati behi bat, handik hurrengoan bertzeari

bertzea, eta... jateko! Egiten zuten gero denboraz requisia erraten zen bezalako bat egiten zuten haiek ere. Eta, etxe batean behinik behin, hirulau behi edo bortz edo zenbat baitziren ere ia begiratzerat etorri ziren; eta omen ziren behi bat eta biga bat, eta etorri omen zitzaizkion baten eske, eta erran omen zion orain arestian erran dudan emazteki zahar horren amatxiren aitak erran omen zion:

- Ai, behinik behin, biga polit hori ez eraman behinik behin!

Eta:

- Nola ezetz! Pues, orain bertan hilen dugu hori, eta hementxe bertan janen dugu!

Klaro, beldur ziren... eskapo zihoazen. Eta egin zuten besta, biga hura hil zuten, bertan hil eta erre eta dena egin zuten, eta, oraindik etxeko sillak eta denak jaitsi omen zituzten beheiti eta ase bat ederra egin zuten denboran, ra! Bertze gainekoak sillak-eta atera eta sillak oraindik kanpoan erre omen zituzten zuten errabiarekin. Eta orduan ja eskapo... joaterakoan egin omen zuten hori.

21. Makiak

- **Erref:** ETL-021/021
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:49:32. **Bukatu:** 00:50:33
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Makiak guk sumatzen genituen pues... batzuetan gure... aita zenak oroitzen naiz mendian, baseritik, lan... lanetik etorri eta paperak propaganda harrapatua ekarri. Eta bueno, haiek klaro... haiek gorde behar ziren, zertaz haiekin harrapatuz gero, bazenuen ja jaleoa.

Gero, nola joaten ziren eltzetzoak eta... soldaduak ere bai joaten ziren nonbait abisua edo bakarren batek zer izaten zuen salatzailea, izaten zen hemen herrian, eta klaro, denetan izaten da. Eta klaro igual handitua. Eta behinik behin horrela joaten ziren eta beren bonbekin eta... belarrean barrena soldaduak eta ikusten genuen nola joaten ziren. Eta gero erraten zuten, ez baitziren igual etxoletarat... ez omen ziren beraiek sartzen, herriko jende bat bidaltzen omen zuten aitzinean, hara begiratzera. Eta orduan ilun bat... hemengo jende bat hil zen, lehertu zuen bonba batek. Eta makiek utzitakoa erran zuten, makiak, eta behinik behin don Julian erraten zuten, hura hil zen.

22. Inauteak

- **Erref:** ETL-021/022
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:50:33. **Bukatu:** 00:52:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Inauteriak nik... gerra denboran akabatu omen ziren. Eta nik, hastera

berriz, e... berrogeita bortzean horrela ezagutu nituen, eta... nola ziren debekaturik oraindik, e... hasi zuten pixka bat guardia zibilak galdetu eta alkateari, eta bueno, alba... alkateak baimena eman eta horrela. Fiestas de la Primavera esaten zuten. Hortik, inauteak.

Eta gero jueves gordo, ortzegun... ortzegun gizen. Hori berrogeita zortzian hasi zuten berriz, zortzian, bederatzi horrela. Mutikoak, haurrak joaten ginen beti segituta. Eta... hemengo, orain akabatu da, bengo... hemengo pertsonajeak izaten ziren Damalariak. Ni ibili izandukatu naiz, Damalariak. Bi pareja ateratzen ziren, jantziak lehengo gisara... eta haiek paseatu eta plazatan dantza egin eta...

- Nola lehengo gisara?

- Lehengo janzkerak, antiguoko janzkerak. Hemengo pertsonajeak Damalariak izaten ziren, eta orain akabatu dira. Eta antzinakoan... hori herri gehienetan hartza izaten omen zen, hartz bat ere, hartza... hartza. (...)

Janzkera, guk, traje normala zen, baina emakumeak ez gona, bes... gona bekondoraino puntilla batzuekin, gero txanbra zuri bat, holako x... txapel bat puntilla batzuekin eta holako... dama. Osea, politena izaten zen emakumeaz janzten zena, gainerakoan pues to... traje bat, pajarita bat, eta holako... eta hori zen, hemengo pertsonaiak hori ziren: Damalariak.

- Eta beste jendea ez zen janzten?

- Ba, beti pixka bat gutxiago. Buen... blusa batzuekin eta... orain gehiago, orain ja... janzten da...

- Baina hori urtero izaten zen bikote bat, ez?

- Bai, bai. Bi, bi bikote.

- A, bi bikote.

- Bi bikote, bai. Gero ... karroza izaten zen, bueno, behiekin tiratzen zen karroa eta haren gainean hura beztitua ezpelarekin eta... beztitua, eta haren gainean joaten ziren Damalariak. Eta gero izaten zen tokia horiena...

- Zer ziren neska eta mutila, edo...?

- Ez, ez, bi mutil.

23. Urtezahar egunean

- **Erref:** ETL-021/023
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:52:24. **Bukatu:** 00:52:59
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Ela, ela

Nor da? Nor da?

Ni naiz Urteberri

Zer dakartzu berri

Uraren gaña

Pakea eta osasuna

Etxekoandrea ona

Nagusia ohea

Ideki, ideki atea!

Bota, bota urtatxak!

Txan txilipitona

Goiz afari ona
Kupela barreanean
Mama goxo
Aurrak yostatzeke
Tira, tira artillería
Como la varia
Grande (y) borracho
Grande (y) borracho
Ideki, ideki atia!
Bota, bota urtatxak!

24. Ilargiaren eragina

- **Erref:** ETL-021/024
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:52:59. **Bukatu:** 00:53:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Bueno, pues ilargiaren eragina hori da, z... ilargi zaharrarekin e... er... egurra bota, egurrarentzat hagitz ona da; baita ere belarrarentzat, meta egiteko. Meta handiak kanpoan egiten zirelarik, e! Goiko, ez dakit, ez dut e... ez dugu kasurik egin, eta bertze pro... produktuak egin behar dituenak baratzean (...). Bai, berean egin behar duenak fruitua, berean egin behar duenak fruitua behar du ilargi zaharrear, berean: azenario, patata... patata ere guk orain ere hala ereiten dugu, ilargi zaharrear, e! Esperatuko dugu egun batzuk, baina ilargi zaharrear. Fruitua berean egin behar duenak, tipula ere bai. Eta leka berriz goran, leka berdea, bainak edo ilarrak, ura ilargi berrian hobea. Porke gainean egin behar duelako gaina, gauza. Hori erraten dute, eta orain ere ari dira radiotik erraten, oseake bada, zerbait bada.

25. Besta egunetan ezin zen zuhaitzetara igo

- **Erref:** ETL-021/025
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:53:54. **Bukatu:** 00:54:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Eta gero, sinesteak bezala baziren besta egunetan, besta seinalatua, honako San Pedro egunean eta, Bestaberri egunean eta horrela pues arboletarat gerezi... hartzera eta ezin zitekeen, zertaz, arrisku handia erortzekoa. Horiek sineste, sineste horiek bai, bai. Jobar, eta ez zen jendea... "Ez ezazula goitiago atera, e! Gaur besta da eta...". Inor gutxi aterako zen.

26. Euria, euria

- **Erref:** ETL-021/026
- **Iraupena:** 0:00:17. **Hasi:** 00:54:21. **Bukatu:** 00:54:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

“Euria, euria, azpiko Andre Maria
Txoritxoak kantari
Lainoz zerua estali
Baietz, ezetz, euri zapar hotsez”
(...) Hori, hori nonahiko... nik pentsatzen dut nonahiko etxetan leihotik
begira kantatzen zirela, uste dut baietz.

27. Menda usain onerako

- **Erref:** ETL-021/027
- **Iraupena:** 0:00:24. **Hasi:** 00:54:38. **Bukatu:** 00:55:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Gero menda, menda hori bai, be... berak errandako andre batek, zaharra, hil zen aspaldi. Menda, halako usain ona du horrek. Hura ibiltzen omen zuten kon... kolkoan sartu eta (...) usain ona izateko. Klaro, orduan ez zen... ez zen perfumerik eta usain txarreko, menda ibiltzen omen zen, berak erran zidan, bai: “Jo, hori neskatxetan ibiltzen genuen kolkoan sartu eta usain ona izateko”, menda.

28. Karliten denborakoa

- **Erref:** ETL-021/028
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:55:02. **Bukatu:** 00:57:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Erraten zuten baserri batean, pasatzean, hemen karlistak erraten zuten... bertze gerrak ja akabatzen joaki izanen ziren, akaberan, ari izanen ziren karlistak menean hartzen liberalak, liberalak omen ziren kontrarioak eta hartu zituzten, eta hona heldu ziren beti gibelka-gibelka hona, eta hemen ja... eta eskapuka heldu ziren hona eta hemen gogor, hemen akabatu zen karlisten gerra! Hemen akabatu zen! Hemen eta Baztanen eta... puntu honetan akabatu zen! Eta Etxalarren suertatu zen puntu bat franko gogorra, gure gurasoak erraten zuten forman. Eta... beti oroitzen naiz nola erraten zuten, eta hura aunitz aldiz erraten zuten, baserri batera ailegatu

zirela karlistak eta orduan jendea ere dena beldurka hemen, eta ateak eta fuerte ixten zituzten! Eta jendea euskalduna, bas... e... erdaraz ez zekitenak, nik neuk ere, hamazazpi urtetan ia ez nekien erdaraz! Hargin peoi hasi nintzelarik nagusiak bidaltzen zidan karabineroen etxeetara eta horrela eta... eta orduan oraindik euskaldun huts ziren, ez zuten hitzik egiten! Eta karlistak:

- ¡Queremos luz! ¡Queremos luz!

Baserri batean, erraten zuten izena eta dena, zer baserritan eta dena, eta igual dut erratea ere, Tonpalaneko borda, Tonpanaleko bordan, eta baserrian eta:

- ¡Queremos luz! - eta - ¡Queremos luz! ¡Queremos luz!

Eta bertzeak nada!

- Zer arraio egiten ditek horiek?! -barreanean, eta- bai, emanen zieagu, hor dituk gaztaina husteko hagak, eta hor luzeak horiek dituk! Luzeak horiek dituk! Luz... luzea, hori izanen da, erran nahiko ditek!

Eta, leiho bat ireki eta gaztaina husteko hagak eman omen zizkioten. Eta pentsatzen dut bertzeak orduan irri egin eta joan izanen ziren, bere gaztaina husteko haga hartu edo ez hartu, ez dakit zer egin zuten! Eta hori kontatzen zuten!

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com